

ERABERRITZE URRATSA

1. Kokapena

Garapen organizatiboan urrats berriak ematea da helburua, geroz eta gehiago izatea, hobe antolatuak, gure praktika sindikala indartzeko aukerak ematen dizkigun funtzionamendu eraginkor batekin.

"Eraberritze urratsa" deitu duguna gure garapenak behar dituen hobekuntzak, aldaketak eta zuzenketak egiteko prozesua da. Biltzar Nagusia prozesu hori egiteko erabaki nagusiak hartzeko baliatuko dugu. Baina gakoa prozesu izaera da, gauzak ez direlako egun batetik bestera egokitzen eta erabakiak hartzea ez delako nahikoa gauzak aldatzeko.

Gaurko antolakuntza ereduaren gainean egingo dugu etapa berria. Esan dugunez, gure antolakuntza eredu definitua dago, egin dugun bidearekin finkatu da. Eginak daude eztabaida estrukturalak eta hartuak daude ereduari buruzko erabaki nagusiak. Eraberritze fase honen helburua ez da antolakuntza eredu aldatzea, testuinguruaren arabera gaurkotzea, ildo sindikalari begira egokitzea eta erronka berriei aurre egiteko eraginkortzea baizik.

Antolakuntzari dagokionez, aurrera begira egin behar dugun ariketa ez da gaur dugun eredu berresteko eta zuzena den aztertzeke eztabaidatzea. Etapa berri bat ireki nahi badugu eztabaida berriak egin behar ditugu antolakuntza alorrean, gaur arte egin ditugunak itxiz, gaur egun ditugun hainbat korapilo askatuaz, eta eztabaida berriak zeintzuk diren identifikatuz.

Sindikatuaren organigrama zein den definitzeko eztabaida egin ordez, gure egituraketak, egiturak eta funtzionamendua izango da aztertu eta eztabaidatuko ditugunak. Hiru elementu hauetan zer zuzendu, hobetu eta aldatu nahi dugun erabakitzeke eztabaida izango da VIII Biltzarreko antolakuntza eztabaida nagusia beraz.

Etapa berria egiteko gure egituraketa zein den definitu behar dugu, fase osorako balio behar dizkiguten erabakiak hartuz.

Gure egiturak nola antolatzen ditugun, nola elkarlotzen diren, egitura bakoitzaren izaera zein den eta sindikatuaren bizitzan zein paper jokatzen duen definitzen du egituraketak.

Organigrama da egiturak nola antolatzen eta elkarlotzen ditugun esaten duena. Gaurkoan oinarritzen gara. Eztabaida honen ondorioz proposatuko ditugun berrikuntza batzuk eginez eta kongresuei aldaketak egiteko aukera kendu gabe, biltzarrean aterako den organigrama definitibotzat hartzen dugu fase berriari begira. Ondorioz, antolakuntza eztabaidaren ardatzak egitura bakoitzaren izaeran eta paperean sakontzea eta funtzionamendua hobetzea izango dira aurrerantzean, organigrama zehaztea izan ordez.

Egitura bakoitzaren izaera eta sindikatuan duen papera aztertzeke eta eztabaidatzeko hiru multzotan sailkatu ditugu. Berez, gure egituraketa osatzen duten hiru aldagaiak dira: egiturak, bitartekoak eta militantzia. Kongresuan hiru elementuak aztertu behar ditugu, bakoitzean zer berritu nahi dugun eztabaidatzeko eta erabakitzeke.

Egiturei buruzko gogoeta

Egiturak bere izaeraren arabera sailkatuz egingo ditugu egitura maila bakoitzak eskatzen dituen eztabaida eta berrikuntzak. Hiru egitura maila ditugu: Zuzendaritzakoak, tartekoak edota koordinaziokoak eta interbentziokoak.

Egitura maila bakoitzak bere bizitza du eta bakoitzaren bizitza aztertu eta eztabaidatu behar dugu arazoei konponbideak aurkitzen saiatzeko. Arazoak eta gainditu nahi ditugun egoerak oso antzekoak dira guztietan, baina konponbideak ez dira guztietan berdinak izango. Eztabaida nagusiak hauek izango dira:

- Zuzendaritzari dagokionez: Sindikatuaren agenda definitzeko eta barne bizitza ordenatzeko izan ditugun zailtasunak gaitzeko aldaketak egitea.
- Koordinazio egiturei dagokionez: Sindikatuaren eztabaida eta estrategia organizatiboan egitura hauen garrantzia handitzea. Zentralidade osoa emango diogu egitura hauek indartzeko funtzionamendua hobetzeari, eta horretarako egitura hauetan ez ezik, zuzendaritzan zuzendu behar ditugunei (egitura hauen bizitzan ditugun arazo askoren jatorria zuzendaritzaren funtzionamenduan dagoelako). Hau izango da eraberritze urrats honetan egin nahi dugun eztabaida garrantzitsuenetakoa.
- Interbentzio egiturak: Hauek dira langileak antolatzeko ditugun egiturak, gure interbentzioa aurrera ateratzeko tresna nagusiak. Sindikatuak aldaketak eragiteko duen gaitasuna egitura hauen araberkoa da. Langileak antolatzea zaila bada, krisiak utziko duen egoeran are eta zailagoa izango dela kontutan hartuz, gaur arteko egiturak balio duten, berri behar ditugun eta berri behar ditugun eztabaidatu behar dugu. Hau izango da antolakuntza ponentzian zentralidadea hartuko duena.

Zuzendatzari buruzko gogoeta orokorrak

NON DAGO SINDIKATUAREN ZUZENDARITZA? Kongresua, Nazio Biltzarra, Nazio Komitea eta Exekutiboa dira zuzendaritza konfederalaren organoak. Azken kongresuan Federazio Komiteak sortu genituen, exekutibotik eratortzen diren beste batzordeak bezala zuzendaritzaren bitarteko direnak.

Bakoitzak bere funtzioa betetzeak ziurtatzen du sindikatuak zuzendaritza eraginkor bat duela, baita zuzendaritza bere papera betetzeko gai dela. Era berean, organo guzti hauek edukitzeak zuzendaritzari erabakiak hartzeko zilegitasuna ematen dio. Guzti horrek horrela izateak egiten ditu erabakiak baliagarriak, bideragarriak eta eraginkorrak. Gure eredia aipatu organo guzti horiek osatzen dute eta guztiak dira beharrezkoak, dagozkien funtzioen arabera zuzendaritza guztiek egiten baitute, exekutiboaren papera eta lidergoa berezia bada ere.

Nork dauka erabakiak hartzeko gaitasuna: Berez, egitura guzti guztietan eta egunero hartzen dira erabakiak. Baina estrategia eta plangintza konfederalari dagozkion erabakiak zuzendaritza konfederalak hartu behar ditu, hori delako bere funtzioa eta berari dagokiolako. Gaitzeko egiturek bere funtzioa betetzeko erabakiak hartu behar dituzte. Beraz, zuzendaritza, koordinazio eta interbentzio egituren arteko aldea ez da bata erabakiak hartzen dituela eta besteak ez.

Gogoeta honek sektore nazio komiteetan du bereziki garrantzia. Ez dira zuzendaritza organoak zuzendaritza konfederalari dagokionez. Baina sektoreek bere funtzio betetzeko behar beharrezkoak dituzten erabakiak hartzeko organoak dira (sektoreko negoziazio kolektiboa eta ekintza sindikala). Beste maila batean kokatzen dira Federazio Komiteak. Federazio komiteak zuzendaritzaren parte badira, bertan dauden sektoreen zuzendaritza estrategikoa hain zuzen. Azken urteetan nabaria izan da sektoreek arazoak izan dituztela egunerokotasunetik aldendu eta eskatzen zitzaizen ekarpena egiteko. Irakaskuntzaren salbuespena kontutan hartu behar dugu hala ere, sektoreko exekutiboaren bitartez zuzendaritza egiteko gaitasuna baitu. Horretarako sortu ziren federazio komiteak; sektoreetako arduradunen bakardadea gainditu eta sektoreekiko lehenetsun konfederal nazionalak bermatzeko. Sektoreetako nazio komiteetatik elikatu behar da federazio komitea politika sektorialen inguruan hausnarketak egiterakoan.

Berdina esan genezake idazkaritzek dituzten talde nazionalen. Idazkaritza bakoitzaren funtzioa betetzeko erabakiak hartu behar dituzte, baina ezin dituzte plangintza konfederalen jaso eta gure interbentzio orokorrean garatu behar diren erabakiak bere kabuz hartu.

Bukatzeko, gogoeta honekin bi gauza lortu nahi ditugu. Alde batetik zuzendaritzaren funtzionamendua hobetzea, organo bakoitzaren papera zein den argituz eta eraginkorragoak izateko neurriak hartuz. Bestetik zuzendaritza indartzea eta zuzendaritza osatzen dugun kideon prestakuntza eta gaitasuna hobetzea. Horretarako beharrezkoa dugu zuzendaritza zein den eta zeintzuk osatzen dugun definitzea, baita gure antolaketa berritu eta funtzionamendua ordenatu ere.

2. BARNE FUNTZIONAMENDUA

2000. urtean V Biltzar Nagusian erabaki genuen gure antolaketa ereduan jauzia ematea eta sektorizazioari ekitea. Urte guzti hauetan sindikatuaren erronka gure ereduaren eraginkortasuna izan da; sindikatuaren interbentzioa eraginkorra izan dadin gure egituren funtzionamenduan pausoak ematea hain zuzen. Aurrera pauso handiak eman ditugula argi dago, baina gure egituraketa definitibotzat jotzen dugun honetan, gure oinarritzko funtzionamenduaren inguruko zenbait argipen egin eta erabaki hartzea komenigarria ikusten da.

Esan bezala, lurralde eremuetan soilik antolatuta zegoen sindikatu bat izatetik lurralde eta sektoreetan antolatzen garen sindikatu izatera igaro gara. Honek eskualdeko egiturari eta sektoreko egiturari funtzio ezberdinak egokitzen zaizkiola esan nahi du, halaberrez.

Eskualdeko idazkaritzak dira sindikatuaren plangintza aurrera ateratzeko ditugun organo konfederalak. Idazkariak aparte, sektoreetako eskualdeko arduradunek parte hartzen dute herri biltzar eta gainontzeko kideekin batera. Azken urteetan garrantzi berezia eman diogu eskualdeko idazkaritzaren funtzionamendu egokiari. Bertatik abiatzen dira sindikatuaren lan ildoak lan zentroetara, sail sindikal edo eta delegatuetara, beraz garrantzitsua da egitura hauek sindikatuaren jokatzeko duten papera.

Sektoreko egituraren kasuan, bere esparruari dagokion interbentzio ildoak zehaztearen ardura dagokio. Ekintza sindikala eta negoziaketa kolektiboari begirako hausnarketa iraunkorra sektoreetako nazio komiteetan egin behar da, baita bere

esparruari dagokion plangintza ere. Sektore bakoitzak bere lehenetasunak definitu behar ditu, beti ere lehenetasun konfederalak kontutan hartuta. Ekintza sindikalerako plangintzaren edukia maila handi batean sektoreek definitzen dute beraz.

Eskualde eta sektore egituraren arteko funtzio banaketa

Esandako guztia kontutan hartuta, sindikatuaren interbentziorako ildoak bi eremuetatik etorriko direla argi dago. Alde batetik lan ildo konfederalak egongo dira, zuzendaritzak ezartzen dituen lehenetasunekin eta bestetik lan ildo sektorialak egongo dira, ekintza sindikalerako gure oinarri izango direnak. Nazio Komitean lan ildo hauek plangintza batean jaso eta eskualdeko idazkaritzaren funtzioa beraz, ildo konfederala eta sektorialaren inplementazioa da.

Eskualdeko idazkaritzan sektoreetako eskualdeko arduradunek sektoreko ildoak bere eremura moldatu eta eskualdean dagoen errealitate eta erronken arabera erabakiak hartuko dira. Erabaki hauek ez dira ildoei begira izango, ildoaren inplementazioari begira baizik. Horretarako oso garrantzitsua izango da lehenetasun konfederalen ezagupena. Eskualdeko idazkariak Nazio Komite konfederalen lehenesten diren ildoei garrantzia eman behar die, baita sektoreetako arduradun nazionalak ere. Eskualdeko idazkaritzak inbutu bihurtu ez daitezela izan behar da gure anbizioa.

Funtzio banaketa honek paper garrantzitsua ematen die sektoreetako nazio komiteei. Lan zentroetan gure interbentzioa eraginkorra izan dadin, interbentzioa sektore ikuspegitik egitea planteatzen da, sektore bakoitzaren errealitatearen arabera. Horregatik sektoreko ildoan hausnarketa eta ebaluazioa sektoreko nazio komitearen funtzioa izan behar da. Ildoen inplementazioa eta inplementazioaren jarraipena aldiz eskualdeko idazkaritzarena.

Bi egitura ezberdin hauetaz hitz egiten dugunean, egitura hauetan partaideak errepikatzen direla gogoratu behar dugu. Eskualdeetako sektoreko arduradunak dira bi egitura hauen funtza; bi egituretan parte hartzen dute eta bi egituretan paper garrantzitsua jokatzen dute. Hala ere argi dago bi egituretan ez dutela funtzio berdina ordezkatzeko, beraz bi egituretan militante hauen parte hartzea ezinbestekoa da eta ezin da bata bestearekin ordezkatu.

Egituren dinamizazioa eta funtzionamendua

Eskualdeko Idazkaritza eta sektoreko nazio komitea ez dira zuzendaritza organoak. Tarteko egiturak dira non sindikatuak kuadroak interbentzioa egiteko lan ildoak jaso edo eta inplementatu egiten dituzte. Koordinazio egitura bezala definitu ditzakegu beraz.

Horrek egitura hauen funtzionamendu eta edukietan bere eragina dauka. Eskualdeko idazkaritza talde motorra izan behar da, dinamikoa eta maiztasun handiarekin bildu beharko dena. Nazio komite konfederalarekin menpekotasuna hautsi eta dinamika propioa izatea lortu behar dugu, nahiz eta dinamika konfederal nazionalak maila batean bileren edukia baldintzatu dezake. Bilerak lan ildoaren inplementazioaren inguruan joan behar dute nagusiki; horretarako eskualde guztietan edukien sistematizazio txiki batetara jo beharko dugu, sindikatuaren interbentzioa ahal den eta ordenatu zein orekatuena izan dadin.

Paper garrantzitsua egokitzen zaio eskualdeko egiturari ildoen inplementazioari dagokionez. Horregatik eskualdeko idazkaritzak bere bitartekoak ezarri behar ditu lan zama guztia liberatuen gain erori ez dadin. Hori izan behar da sektoreko taldeen funtzioa, sektore bakoitzak ezartzen dituen ildoak eta eskualdeko idazkaritzak ezartzen dituen erronkak aurrera eramateko bitarteko bat izatea. Ez da gure helburua izan behar talde hauetan sektoreko delegatu guztiak sartzea, edo eta enpresa esanguratsuenak...talde motor eta dinamiko bat sortu eta sektore bakoitzak eskualdean daukan errealitatearen arabera gorpuztuko da, lan zehatzak egiteko.

Sektoreetako taldeetatik aparte herri biltzarrek ere interbentziorako bitartekoak dira. Hala ere gure interbentzio sindikala sektoreen bitartez egin nahi badugu sektoreetako taldeen pisua areagotuko dela argi dago. Hala nola, enpresa txikiei begira eta sektore atomizatuei dagokionez paper garrantzitsua jokatu behar dute herri biltzarrek.

Argi dago beraz kokapen konfederala eskualdeetako egituretan egin behar dela. Honek esan nahi du sektoreetako nazio komiteetan ez dagoela kokapen konfederala egitearen beharrik. Ezin dugu pertsona berdinez osatutako bi egituretan edukia bikoiztu; aipatu dugunez, egitura bakoitzak bere funtzioa dauka eta hori errespetatzea klabea da funtzionamendu egokirako. Sektoreetako nazio komiteetan negoziazio kolektiboari begirako jarraipena egin eta erabakiak hartu behar dira, baita sektoreari dagozkion ekintza sindikalerako gainontzeko ildoen inguruan ere.

→ EGIW EZ / EGON BA.
Plangintzak egiteko prozedura

Egitura bakoitzaren funtzioekin batera plangintzak edo lehentasunak zehazteko prozedura oso garrantzitsua da. Aipatu bezala bai eskualde zein sektoreetako egitura ez dira zuzendaritzako egitura beraz ez daukate lehentasunak erabakitzeke gaitasunik.

Hori argi edukita, sindikatuan denbora ezberdinak behar bezala errespetatzea ezinbestekoa da. Zuzendaritzak arintasun gehiagorekin egin beharko ditu lehentasun konfederal nazionalen erronken zehaztapena, gerora sektoreetan ekintza interbentzioaren ildoak zehazten joan daitezzen. Horrela bakarrik lortuko dugu gure interbentzioa ordenatua eta eraginkorra izatea eta eskualdeetan dinamika ezberdinek talka ez egitea. Erronka hori izanik, zuzendaritzaren funtzionamenduan ohituta batzuk aldatzea ezinbestekoa da. Organo hauetan hartzen diren erabakien kudeaketa behar bezala egin behar da eta horretarako baliabideak ipini behar dira. Batez ere, Exekutiboa eta Nazio Komitearen erabakiek gainontzeko egituretan izan behar duten eragina bermatu behar da.

Bestalde, funtzionamendu orokor honen baitan kokatzen ditugu eskualde eta sektore ezberdinen artean eman daitezkeen desorekak ere. Argi dago eskualde zein sektore bakoitza mundu bat dela eta behar ezberdinak egon existitzen direla. Horrek ez du esan nahi eskualde edo sektore zehaztetan lehentasunei buruzko erabakiak hartu daitezkeenik, nazional mailan erabakitakoak alboratuz. Behar bereziak dauden eremuak sindikatuaren lehentasuna dira eta gure antolaketa ereduaren baitan jorratu behar ditugu, hau da, Nazio Komite konfederalaren lehentasunen baitan. Eskualdeko sektoreetako arduradunen papera kasu hauetan oso garrantzitsua da, errealitate ezberdinen ezagutza uztartzeko alegia.

3. SINDIKATUAREN HEDAPENA – FASE BERRIRAKO HAUSNARKETA

Sindikatuaren eraberritze prozesu honetan gure inplantazioari buruzko hausnarketa zabala egitea beharrezkoa da ere. Azken urte hauetan gure sindikatuaren hedapenak fase oso emankor bat bukatu du. Krisi garaiak sindikatura urbiltzen den jende berriaren profila aldatzen ari du eta instituzioetatik planteatzen ari diren erreforma ezberdinek lan harremanen eredian eragin zuzena izango dute. Hori guztia kontutan hartuta, hedapenari begira izan dugun estrategia eraberritzera eraman behar gaitu. Sindikatuak afiliazioa gehitu nahi badu eta ordezkartzan pausoak eman nahi baditu, horretarako beharrezkoak diren pauso estrategikoak martxan jarri beharko ditu.

Garai emankorraren bukaera

90. hamarkadan sindikatua EAEn ordezkartza nahikoa lortu zuenetik hona urte asko pasa dira. Oso garai emankorrak izan dira afiliazio ikuspegitik; enpresetan gure erreferentzia indartzen joaten zen heinean, langileak LABra afiliatzen ziren gure ordezkariak egindako lanaren ondorioz. Aholkularitza juridikoan erreferentzia handia lortu genuen eta 2000. hamarkadan aholkularitza juridikoa afiliatzeko bitartekoa zela ere erabaki genuen.

Azken urteetan ordean gauzak aldatzen joan dira eta batez ere krisi garaiak gure hedapena erabat baldintzatu duela esan dezakegu. Azken urteetan gure ordezkartzan izan dugun geldiuneaz gain, krisiaren hilabete latzenetan ordezkartza galera izan dugu. Zenbait hilabeteetan afiliazio galerak izan ditugu ere. Azken urteetan nabaria da gure afiliazioaren zati handi bat aholkularitza juridikotik datorrela. Honek esparru honetan lan zama biderkatzen du, fideltasun gutxiren truke. Azken hamarkadetan izan dugun bilakaera hautsi egin da eta kuota ezberdinen artean desorekak hasi dira, kuota ertaina eta murriztuaren alde noski.

Argi dago etorkizunean sindikatua posizio hobeto batean egon dadin gure arreta enpresetan jarri beharko dugula. Horretarako beharrezkoak diren erabakiak hartu behar dira, lehentasunak ezartzeko eta dagoen lan zama behar bezala ordenatzeko.

Ekintza sindikala gure hedapen strategiaren oinarri

Azken hilabeteetan askotan ari gara esaldi hori azpimarratzen. Azken epealdi trinkoaren balorazioaren baitan, hedapenen strategiaren planifikazioan gabeziak ditugula esaten genuen. Gabezi hauek ez dira bakarrik hauteskunde sindikalen esparruan ematen, afiliazioari dagokionez enpresetan afiliazio dinamika erreala aurrera eramateko arazoak izaten ditugu. Ordezkartza daukagun enpresa askotan oso afiliazio kopuru txikia daukagu eta honek sail sindikalen lanketarako dinamikak martxan jartzeko aukerak gutxitzen dizkigu. Gainera, negoziazio kolektiboaren erreforma dela eta, sindikatuaren indarra eta esku hartze gaitasuna handitu beharra izango dugula argi dago, batez ere patronalarekin izango dugun hartu emanean erreferentzialtasun handiagorekin iristeko.

Argi dago krisialdi garai honek lan harremanen eredia aldatuko duela. Horrek gure estrategia orokorraren inguruan hausnarketa egitera eraman behar gaitu, lehentasun berriak identifikatzera hain zuzen. Atal honetan hausnarketa sakonegietan sartu gabe, enpresa mailan kokatu nahiko du bere esparru nagusia patronalak. Hala beharrez,

sindikatuak enpresetan indartsu egon behar da, bai ordezkaritza mailan baita sail sindikalaren dinamikari dagokionez. Honek sindikatuarekiko atxikimendua lantzeran eraman behar gaitu.

Sindikatuak interbentzio esparruak irabazi behar ditu. Horretarako ordezkari gehiago beharko ditugu, ordezkaritza maila altuagoak lortu behar dira, paperaren gainean jartzen ditugun planteamenduak benetan gauzagarriak izan daitezzen. Horretarako sektore eta eskualdearen arteko lan planifikatua ezinbestekoa da. Bukatu da epealdi trinkoari begira egotearen garaia; sektoreetatik martxan jartzen diren lan ildoak eskualdeetan modu eraginkor batean aurrera eraman behar dira, interbentzioaren integritasuna behar bezala zainduz.

Horregatik sektoreetako plangintzak garrantzi berezia hartzen dute fase honetan. Esparru eta kolektibo ezberdinei egokitutako ekintza sindikala izan behar da gure estrategiaren ardatz nagusietakoa. Langileen lan baldintzak hobetuko dituen ekintza sindikalaren inguruko eztabaida eta hausnarketak nagusitu behar dira, gure sindikatuak urteetan irabazi duen erreferentzia sindikal hori galdu ez dezan.

Eskualdeetako Idazkaritzetan beraz sektoreetako ildoan gauzapena eman behar da. Gauzapen hori behar bezalakoa izan dadin estrategia konfederalaren ezagutza ezinbestekoa da. Eskualdean errealitatearen ezagutza dago eta bertan egiten den interbentzioaren planifikazioa ezin da estrategia konfederalatik urrundu.

Estrategia konfederala eta LABn erreferentzia

Euskal herrian ireki berri de fase berriak sindikatuarengan eragina izango du. Independentziaren aldeko aliantzak gorpuztu eta indartu behar dira eta zalantzarik gabe LABk paper garrantzitsua jokatuko du.

Horretaz aparte, atxikipen ideologikoak ekarri dezakeen sindikaturako gerturatze hori landu behar dugu. Langileekiko mezua zabaldu baina atxikipena eskatu, LAB erreferentzia sindikal independentista bakarra bezala agertu behar da. Argi dago afiliatze faktore mota hau gaur egungo gizartean gainbeheran joan dela, baina Euskal Herriak bizi dituen garai berri hauetan sindikatuak hobeto posizionatu behar da iritzi publikoan eta teknologia berrietan. Borroka ideologikoz aparte, gure anbizioa jendea sindikatura etortzea izan behar da.

Honekin batera gure proposamen konfederalen balioa lan zentroetan bilatu behar dugu. LABek publikoki eragiteko gaitasuna lortzen badu, gizartean izan dezakeen islarekin batera lan zentroetan eragina izatea bilatu behar dugu.

Garai berriak erabaki berriak

Urteetan zehar sindikatuak erabaki ezberdinak hartu ditu afiliazio irizpideei dagokionez. Azken urteetan nagusienak aholkularitza juridikoari zerikusia daukatenak izan dira. Bere garaian soilik afiliatuei aholkularitza juridikoa eskaintzearekin batera, gutxienezko urte beteko konpromisoa martxan jartzea erabaki genuen. Erabaki hauek helburu bikoitza zeukaten; batetik aholkularitza juridikoa afiliazioa gehitzeko bitarteko bezala jartzea eta bestetik aholkularitza horrek suposatzen duen lan zama ordenatzea.

Inori ez zaigu eskapatzen helburu horiek soilik partzialki bete direla. Afiliazio asko egiten dugu aholkularitza juridikotik eratorrita, baina fideltasun gutxikoa. Konpromisoaren baldintza betetzen dela argi dago baina kasu askotan gure liberatuek izaten duten lan zama handia ez du urte bete horrek konpentsatzen. Argi dago beraz hemendik aurrera aholkularitza juridikoaren inguruan hausnarketak egin behar ditugula, bai antolaketa ikuspegitik zein kudeaketa ikuspegitik. Soilik aholkularitza juridiko bila etortzen diren afiliatu berri horiei gehiago eskatu behar diegu, benetan ekintza sindikalean dabilen afiliatuari babes hobea bat eskaintzeko.

Azkenik sindikatuan duela urte asko ezarrita dauden afiliazio kuoten inguruko hausnarketari ekin behar diogu. Gaur egun dauzkagun hiru kuotak ez dira beti existitu. Afiliazio kuotak testuinguru ekonomiko eta soziala kontutan hartuta erabaki dira, baita sindikatuaren beharrekin uztartzen ere. Hasieran kuota bakarra zegoen eta langabetuek ez zuten ordaintzen. Gerora langabetuek ere ordaintzen hasi ziren eta azkenik kolektibo ezberdinei begira gaur egun ditugun hiru kuotak ezarri ziren.

Argi dago hiru kuoten formatua egokia dela, gehienbat lan merkatuan biderkatzen ari diren egoera prekarioei so egiten badiegu. Sindikatuaren erronka langile hauek antolatzea izan behar da eta horretarako beraien ezaugarriez jabetu behar gara. Hala ere banaketa beste modu batean egin behar dugu. Kuota orokorra gaur egun dagoen bezala mantendu eta beste bi kuoten inguruan hausnarketa egin behar dugu. Langabetuak eta lanaldi partzialetako langileak parekatzea ez dauka zentzurik gaur egun. Kuota ertaina delakoa hiru laurdenetara pasa eta bertan prestazioa jasotzen duten langabetua eta erretiratuak kokatu eta kuota murriztua ertainera pasa, bertan prestazioa jasotzen ez duten langabetuak eta lanaldi partzialetako langileak kokatzea da egiten dugun proposamena. Gure helburua afiliazio kuotak garai berrietara egokitu eta lehenago aipatu ditugun testuinguru ekonomiko eta soziala eta sindikatuaren beharren inguruko uztarketa egitea da.